

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 1034

*16/2019 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakia, zeina Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduak onartutako lehiaketa publikorako deialdiaren ondoriozkoa baita.*

Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 19ko batzarrean onetsi du maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak ematea, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduak onartutako lehiaketa publikorako deialdiaren ondorioz. Horrenbestez, erabaki horri beharrezko publizitatea emateko, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko Erabakia, zeina Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduak onartutako lehiaketa publikorako deialdiaren ondoriozkoa baita. Ebazpen honen eranskinean jasota dago Erabakia.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,  
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO  
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN OTSAILAREN 19KO 16/2019 EBAZPENARENA

ERABAKIA, GOBERNU KONTSEILUARENA, MAIZTASUN-MODULAZIOKO UHIN  
METRIKOETAKO IRRATI-KOMUNIKAZIOKO ZERBITZUAK ESKAINTZEKO LIZENTZIAK  
EMATEKO DENA, ZEINA KULTURAKO SAILBURUAREN 2012KO OTSAILAREN 29KO  
AGINDUAK ONARTUTAKO LEHIAKETA PUBLIKORAKO DEIALDIAREN ONDORIOZKOA  
BAITA

Maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-difusio soinudunaren plan tekniko nazionala onartzen duen irailaren 1eko 964/2006 Errege Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoak eman beharreko 34 maiztasun planifikatu zituen guztira (2006ko irailaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala, 223. zk.).

Euskadin ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua emateko araubide juridikoa arautzen duen ikus-entzunezko komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuaren arabera, Gobernu Kontseiluak, 2012ko otsailaren 28ko batzarrean, Euskal Autonomia Erkidegoan maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketa publikoa arautzen duten oinarriak onetsi zituen (Erabakia honako xedapen honen bidez argitaratu zen: otsailaren 29ko 14/2012 Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena). Azkenik, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez, lehiaketa publikoaren deialdia egin zen. Esleitu beharreko 34 lizentziak 14 bloketan multzokatzen ziren, irratiaren eta biztanleriaren ezaugarrien arabera (Xedapen biak 2012ko martxoaren 12ko EHAAren argitaratu ziren, 51. zenbakian).

Organo eskudunak irekitako prozeduraren bitartez bideratutako espedienteak hasi ostean, eta lehiaketako Balorazio Mahaiak lizentziak adjudikatzeko proposamena egin eta interesdunei jakinarazi ondoren, Gobernu Kontseiluak, lizentzia horiek eman baino lehen, 2012ko abenduaren 11n egin zuen batzarrean, erabaki hau hartu zuen: «maiztasun-modulazioko uhin metrikoen bidezko irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak emateko lehiaketari interes orokorreko arrazoiengatik uko egitea» (Erabakia honako xedapen honen bidez argitaratu zen: urtarrilaren 10eko 1/2013 Ebazpena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena; 2013ko urtarrilaren 24ko EHAA, 17. zenbakia).

2012ko abenduaren 11ko Erabakiaren kontra, errekurtsioak administrazio-bidean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian aurkeztu ziren. Dagozkien epaien betearazpenaren ondorioz, eta epaiak Auzitegi Gorenak berretsita, Gobernu Kontseiluak behin betiko lizentzien esleipen hauek adostu zituen:

F-MHz	Kodea	Herria	Esleipenduna
92.2	1	Bilbao	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
94.3	2	Bilbao	Radio Lider SL
97.4	11	Durangaldea	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
96.7	13	Gernika	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
91.5	14	Vitoria-Gasteiz	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
94.5	15	Vitoria-Gasteiz	Radio Lider SL
89.9	17	Vitoria-Gasteiz	2 más 2 Publicidad Integral SL
90.4	22	Vitoria-Gasteiz	Araba Irratia SL
93.8	24	Donostia	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
94.8	25	Donostia	Radio Lider SL
95.6	26	Donostia	Onda Guipuzcoana FM SL
105.8	27	Donostia	ONG Pausu Media Elkarte
102.2	29	Beasain	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
105.4	30	Beasain	Murumendiko Uhinak Kultur Elkarte
91.8	32	Azkoitia	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
94.6	33	Legazpi	Euskal Irrati Zerbitzuak SL
100.5	34	Legazpi	Lekaio Kultur Elkarte

2015eko abenduaren 22an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Radio Lider Euskadi SLri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 16/2015 Epaia behin-behinean betez. Erabakiaren testua 2016ko urtarrilaren 4ko EHAA n argitaratu zen, 1. zenbakian.

2016ko martxoaren 8an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak ONG Pausu Media elkarteari ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 50/2015 Epaia behin-behinean betez. Erabakiaren testua 2016ko martxoaren 16ko EHAA n argitaratu zen, 52. zenbakian.

2016ko martxoaren 8an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Euskal Irrati Zerbitzuak SLri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 5/2015 Epaia behin-behinean betez. Erabakiaren testua 2016ko martxoaren 21eko EHAA n argitaratu zen, 55. zenbakian.

2016ko uztailaren 19an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak 2 más 2 Publicidad Integral SLri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 452/2014 Epaia irmoa betez. Erabakiaren testua 2016ko abuztuaren 2ko EHAA n argitaratu zen, 146. zenbakian.

2016ko uztailaren 19an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Araba Irratia SLri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 27/2015 Epaia betez. Erabakiaren testua 2016ko abuztuaren 2ko EHAA n argitaratu zen, 146. zenbakian.

2016ko azaroaren 22an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Lekai Kultur Elkarteari ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 602/2014 Epaia betez. Erabakiaren testua 2016ko azaroaren 30eko EHAAan argitaratu zen, 228. zenbakian.

2016ko azaroaren 22an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Onda guipuzcoana FM SLri ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 19/2015 Epaia betez. Erabakiaren testua 2016ko azaroaren 30eko EHAAan argitaratu zen, 228. zenbakian.

2016ko azaroaren 22an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko lizentziak Murumendiko Uhinak Kultur Elkarteari ematea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 602/2014 Epaia betez. Erabakiaren testua 2016ko abenduaren 2ko EHAAan argitaratu zen, 230. zenbakian.

2018ko uztailaren 17an, Gobernu Kontseiluak onetsi du Gobernu Kontseiluaren 2012ko abenduaren 11ko Erabakia ofizioz berrikusteko irekitako espedienteari buruzko Erabakia, zeinaren bidez uko egiten baitzaio, interes publikoagatik, lizentziak esleitzeko lehiaketari. Uztailaren 17ko Erabakiak Gobernu Kontseiluaren 2012ko abenduaren 11ko Erabakiaren deuseztasuna deklaratu zuen.

Aurreko erabakiaren ondorioz, dagokionez behin prozedura atzera eramanda, lehiaketa publikoa arautzen duten oinarrietan ezarritako izapide guztiak beteta, Balorazio Mahaiak, 2019ko otsailaren 5ko bileran, adostu du deialdian esleitu gabeko maiztasunei dagozkien lizentziak adjudikatzeko proposamena onartzea, eta Gobernu Kontseilura bidaltzea.

Oinarriek hogeita zazpigarren klausulan adierazten dutenez, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, eta Balorazio Mahaiak egindako proposamena ikusita, Gobernu Kontseiluak lizentziak eramatea erabakiko du. Lizentzia emateko egingo den egintza Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta banan-banan jakinarazi behar da, lehiaketaren oinarrietan ezarritakoari eta Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Hogeita zortzigarren klausulan adierazten dutenez, interesdunari lizentzia eman zaiola jakinarazi eta gero, hilabeteko epean sinatuko da administrazio-agiri egokia. Agiri horretan sartuko dira lizitatzailleak bere eskaintza teknikoan hartutako konpromisoak, eta zerbitzu-emaileak nahitaez bete beharko ditu konpromiso horiek.

Ondorioz, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaia aztertu ostean, honako hau

#### ERABAKI DU:

«Lehenengoa.– Lizentziak ematea maiztasun-modulazioko uhin metrikoetako irrati-komunikazioko zerbitzuak eskaintzeko, Kulturako sailburuaren 2012ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez egindako lehiaketa publikoaren oinarriari jarraikiz. Lizentziak zerrenda honetan deskribatuta daude:

F-MHz	Kodea	Herria	Esleipenduna
88.5	3	Bilbao	Radio 7 SL
90.1	4	Bilbao	Eusko Media SL
92.7	5	Bilbao	Sociedad Española de Radiodifusión SL
95.1	6	Bilbao	RK 20 SL
95.8	7	Getxo	Berbako Uribe Kostan Irratigintza Euskalduna Sustatzeko Elkartea
101.1	8	Getxo	Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea SA
104.8	9	Getxo	Nervitel Sistemas SL
105.6	10	Getxo	Ameba Kultur Elkartea
96.7	12	Durango	Ibaikom Kultur Elkartea
106.1	16	Vitoria-Gasteiz	Radio Amanecer SL
101.6	18	Vitoria-Gasteiz	Radio 7 SL
104.6	19	Vitoria-Gasteiz	Uniprex SAU
87.7	20	Vitoria-Gasteiz	Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea SA
92.0	21	Vitoria-Gasteiz	GMC Business Group Marketing Audiovisual y Comunicación SL
95.6	23	Vitoria-Gasteiz	Zadorra Irratia Elkartea
106.9	28	Donostia	Eusko Media SL
106.5	31	Beasain	Radio Amanecer SA

Bigarrena.– Lehiaketaren oinarriek hogeita zortzigarren klausulan adierazten duten administrazio-agiria formalizatzea. Horren eskumena Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kabineteko zuzendariak du, berari dagokiolako administrazio-kudeaketa egitea ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzuak eskaintzeko beharrezko titulu juridikoak emateko prozedurena. Administrazio-agirietan gehitu dira, alde batetik, lizitatzailerako bakoitzaren konpromisoak, hau da, deialdian aurkeztutako eskaintza teknikoei dagozkienak, nahitaez bete beharrekoak, eta, beste aldetik, zerbitzua emateko baldintzak, eta horietan adieraziko da zeintzuk joko diren zerbitzuaren funtsezko baldintzat, deialdiaren hamargarren oinarriaren arabera.

Hirugarrena.– Erabaki hau esleipendunari eta interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie, Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko azaroaren 8ko 231/2011 Dekretuaren 14.6 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Laugarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea aginduko du».